

V. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Zure betiko maitasunaz zaindu, Jauna, zeure familia;
eta, zure grazia baitugu gure itxaropen bakararra,
zaindu gaitzazu beti zure babesean.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 58, 7-10

Egunsentia bezala zabalduko da zure argia.

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:
Eman zure ogitik gose denari;
etxean hartu, aterperik gabeko behartsuak;
jantzi bilutsik dagoena,
eta ez bazterrera utzi zure urkoa.
Orduan zure argia
egunsentia bezala zabalduko da,
eta zure osasuna berehala erneko;
aurretik joan zaizu zuzentasuna,
eta ondotik Jaunaren aintza.
Orduan zuk hotsegin, eta Jaunak erantzungo dizu;
zuk deiadar egin, eta Hark honela erantzungo:
«Hemen naukazu».
Uztarria, jotzeko keinuak eta asmo txarrak
zure ingurutik aldentzen badituzu,
gose denari zure ogitik ematen badiozu,
eta behartsuari jaten,
zure argia ilunbetan zabalduko da,
eta zure ilunaldia eguerdi bihurtuko.

ERANTZUN SALMOA: Sal 111, 4-5. 6-7. 8a eta 9

R/. **Zitzoentzat ilunbetan argia bezala
sortzen da.**

Edota: **Aleluia.**

Zintzoentzat ilunbetan argia bezala sortzen da;
onbera da, errukitsua eta zuzena.
Zorionekoa, errukitu eta eman egiten duena,
bere gauzak zuzen atontzen dituena. R/.

Ez da koloka ibiliko behinere,
hartaz oroitzeak iraungo du betiere.
Berri txarrak ez du beldurtzen,
bizkor du bihotza Jaunagan itxaroten. R/.

Sendo dauka bihotza beldurrik gabe,
zabaltzen die eta ematen behartsuei,
beti irautekoa da haren esku zabala,
ospez jaikiko da haren ahalmena. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Kor 2, 1-5

Jesu Kristo gurutziltzatua hotsegin nizuen.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Zuen artera joan nintzenean, ez nintzaizuen joan Jaungoikoaren aitormena hitz eder eta jakintsuz hotsegitera. Izan ere, ezer ez nuen nik zuen artean jakin nahi izan. Jesu Kristo besterik, eta Hau ere gurutziltzatua.

Eta ni zuen aurrean argal, beldurti eta ikara haundiz agertu nintzen. Nire hitza eta erakusbidea ez zen hitz ederren jakinduriazkoa izan; Espiritu indarraren agerpidez baizik; zuen sinesmena Jaungoikoaren indarrean oinarritua izan dadin, eta ez giza jakindurian.

EBANJELIOA: Mt 5, 13-16

Aleluia: Jn 8, 12b. d

R/. Aleluia.

V/. Ni naiz munduaren argia –dio Jaunak–;
nire ondoren datorrenak
izango du bizirako argia. R/.

Zuek zarete munduaren argia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatza. Eta gatza gezatzen bada, zerekin gazituko da? Kanpora botatzeko eta oinpean zapaltzeko bestetarako ez da. Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkutatu mendi gainean dagoen herria. Argia ere bizten denean, ez da lakaripean ipintzen, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien.

Bego biztuta zuen argia ere gizakien aurrean, zuen egite onak ikus ditzaten, eta zeruetan dagoen zuen Aita gorets dezaten.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
gu indartzeko egin dituzu ogia eta ardoa;
egizkizu guretzat betiko biziaren sakramentu ere.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna,
ogi eta kaliza beretik hartzea eman diguzu;
egizu, Kristorengan bat eginik bizi gaitezela
eta fruitu ugari ekar dezagula
munduaren salbamenerako.
Jesu Kristo.